

Bidezidor irisgarrien aulkia



Arabako lurralde historikoko ikastetxe guztiei zuzendua, eskola-adineko haurrentzat, batez ere Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoentzat.

Desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten hurrek, eragozpena aldi baterakoa edo iraunkorra izan, ikaskideekin mendi-ibiliak eta naturarako irteerak egiteko jardueretan parte hartzeko aukera izan dezatela erraztea, hartara inklusioa, berdintasuna eta beste zenbait balio sustatuko dira, hala nola, enpatia, elkartasuna eta adiskidetasuna.

Jarduteko modua

- Vital Fundazioak aulki berezi egokitu bat eskainiko du (mendiko gorpil bat duen motxila modukoa), eta gidari profesional batek eramango du.
- Ikastetxeek beren eskola-egutegietan sar dezakete jarduera hori, eta naturarako irteera irisgarriak antolatu.

- Mugikortasun urriko ikasleentzako helburu espezifikoak ezarriko dira, taldeko gainerako kideekin batera haien parte-hartze aktiboa sustatzeko.

Eskaera

Arabako lurraldeko ikastetxe guztiek jarduera hau doan eskatu dezakete helbide elektroniko honetara idatziz: actividades@fundacionvital.eus eta informazio gehiago nahi izanez gero, **945 064 367** edo **945 064 355** telefonoetara deitu.